Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**ERABAKIA, 2018ko urriaren 22koa Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, horren bidez, EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEArakoF 491 Atezain nagusia lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia hutsik geratuko dela adierazteko dena.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa**.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2018ko irailaren 26ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena**.- Gerentearen erabakiaren bidez, 2018ko urriaren 22koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen onartutako lehiakiderik gabe.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa**.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 35/2015 Legea (2015eko urriaren 2ko EHAAn argitatarua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei prozedura irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena**.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn).

*Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,*

## ERABAKI DU

**Lehenengoa**: Erabaki honen eranskinean zehasten den lanpostua betetzeko prozedura hamaitutzak jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

**Bigarrena**.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

**Hirugarrena**.- Erabaki hau jakinaraztea, dagozkion Zerbitzuko Buruari edo Admnistratzaieari. Har beza kontuan AZPkoen Atalak

**Laugarrena**.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2018ko urriaren 22an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA 2018/09/26

| | |
|---|---|
| | HUTSIK / DESIERTA |
| Lanpostuaren Izena: | Atezain nagusia |
| Lanaldia: | Arratsaldez jarraitua, larunbatak barne |
| Eref.: | F 491 |
| Zenbatgarrena: | 42 |
| Maila: | 16 |
| Taldea: | E |
| REskala: | Menpekoa |
| H.E.: | 2; 1994ko urriaren 30a |
| Langunea: | EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA |
| Campus: | BIZKAIA |
| BE: | |
| Ondorio data: | |